

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Muskildi

Aurkibidea

Udalerria: Muskildi

Sarrera



Zuberoako mendebaldeko udalerria, Arbaila eskualdekoa. Nafarroa Behereko mugan kokatua dago; Lauga auzokoek Muskildin bozkutzen dute, baina eliza Donaixtin dute (Behe Nafarroa). Biduze ibaia eta Pagolako uhaitza igarotzen dira udalerritik, bai eta haietara isurtzen diren hainbat erreka ere. Herri hauek ditu mugakide: Pagola iparraldean, Urdiñabe ekialdean, Donaixti-Ibarre (Nafarroa Beherea) mendebaldean eta Altzürükü hegoaldean. Udalerriko ekonomia laborantzan eta abeltzaintzan oinarritzen da.

- **Biztanleak:** 236
- **Euskaldunak:** %70,14

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **14**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **14**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal kultur erakundearen artxiboak

Hizlariak

Jeanne Arcondeguy (1923)



Jeanne Arcondeguy, sortzez Chimist, 1923ko maiatzaren 13an sortu zen Muskildin (Zuberoan). 1943an Larribarreko maiasturu (zurgin) batekin ezkondu zen eta bi haur ukan zituzten. Jeanne etxalde ttipiaz (7 behi bretoi esnedun) arduratzen zen. Enkanteetan behar zen materiala erosirik, egun batez aguardienta egiten hasi zen. 50 urtez jende ainitzek etxera ekarri izan dizkiote arnoa, sagarinoa eta fruituak.

Maiana Garcia Elgart (1926)



Maianaren aita, Pierre Garcia, Olhorteia etxekoa zen, Muskildiko Lauga auzokoa. Ama, Anne Marie Inchastoichipy, ere Muskildikoa zen, Bidauia etxekoa. Bost seme-alabetan hirugarrena zen Maiana. Auzoko eskolara joan zen, eta ondotik Baionan egon zen eskola pribatu batean. Aita gazterik zendu zen, 42 urterekin. Eritu zelarik, Maiana etxera sartu zen. Anaia 24 urteetan zendu zen, eta Maianak etxondoaren segida hartu zuen. 1950ean Hoztako Charles Elgartekin ezkondu zen, Garakotxia etxekoa, eta elgarrekin lau haur ukan zituzten.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Muskildiko neska baten haurtzaroa (1930 hamarkadan) (MUS-003/001)

Etiketetik oinez abiatu, kalotxak oinetan, amak egin oihaldeko zakua bizkarrean eguerdiko bazkariarekin, Jeannek eskolako oroitzapenak kondatzen dizkigu. Eskolan, euskaraz aritzea debekatua zen. "

2. Neskato baserri batean (1936) (MUS-003/002)

Lehen lan tokian, behi deitzen eta burra egiten ari zen.

3. Dolua (1935-40 hamarkadan) (MUS-003/003)

Etxekanderearen amani hil zelarik, Jeannek dolua ekarri zuen zenbait denboraz : oihal dorpez egin arropa beltz bat eta elizara joateko mantalina.

4. Neskato errienten etxean (1937) (MUS-003/004)

Bi urte egon zen neskato erreintsa eta erreint kuple baten etxean. Hauekin manera onak ere ikasi zituen. Haatik elizako bidea galdu...

5. Munduko bigarren gerlaren abiatzea (1939an) (MUS-003/005)

Jeanne gerla garaian esposatu zen Larribarreko maixtru batekin. Donapaleura joateko erosketen egitera, Alemanen aitzinean iragan behar zuten, paperrak erakutsiz. Janaria ere neurtua zen, baimenak tiketen bidez zituzten. Ogi xuri baino gehiago ogi beltz jaten zuten.

6. Aguardiant egile 50 urtez (MUS-003/006)

Koinata batek enkante batzuetan aguardinta egiteko tresna bat erosirik, Jeanne hasi zen aguardianta egiten. Familia guziek aguardinta egiteko dretxoak zituzten baina hauek emeki emeki desagertu dira.

7. Aguardiant egitea (1946-1992 arte) (MUS-003/007)

Mahats grasparekin edo mertxikekin, arno hondarrekin edo sagarnoarekin, aguardianta beti manera berean egiten zen. Aguardiantaren egitea lana zen, hurbiletik segitu behar baitzen. Hala ere diru pixka bat ekartzen zuen.

8. Aguardiant kantitateak (MUS-003/008)

Hiru saskitra graspari arno edo ur xorta bat nahasi ondoan, irakinarazi kasik hiru orenez berrogeita zortzi grado inguruko hamar bat pinta ateratzeko. Arnoarekin bakarrik eginez, hogeita bost pinta inguru egiten ziren.

9. Aguardiant egiteko dretxoak (MUS-003/009)

Familia bakoitzak urtero hogeitaz pinta aguardiant egiteko eskubidea zuen. Jeannek aldiz xuxen zenbat egiten zuen eta norendako markatu behar zuen eta kaierra Donapaleuko zerga etxera eraman. Kontrola zorrotzak ere izaiten ziren.

10. Edateko okasioneak (MUS-003/010)

Goiz, eguerdi, arrats... gizonak bereziki usaia zuten aguardiant xorta baten edatea kafearen ondotik. Aguardianta erabiltzen zuten ere mafrundi zirelarik, esnearekin nahasiz. Garai hartan, arnoaz bestalde, ez zen beste alkoholarik.

11. Fruituak aguardiantan (MUS-003/011)

Edozein fruitu ezartzen zen aguardiantaren barnean. Zahartzera utziz, fruituak gustu ona hartzen zuen. Emazteek bereziki jaten zituzten fruitu horiek.

12. Tresneriaren konponketa (MUS-003/012)

Problema bat agertzen zelarik aguardianta egiteko tresnerian, Jeannen senarrak Maulera eremaiten zuen.

13. Aguardianta egiteko debekua (MUS-003/013)

Emeki emeki, etxeetako arrañoamenduak eginez bezala, familia bakoitzak zituen aguardianta egiteko eskubideak ez dira belaunaldi batetik bestera transmititu. Horrela, 1980 hamarkadatik goiti, aguardiant egitea debekatua da.

14. Alanbikea Gamueko jauregian ikusgai. (MUS-003/014)

Aguardianta egitea debekatua izanez, zerga etxeak tresneria haustea galdegiten zuen. Horren saihesteko, Jeanne Arcondéguy-k Gamueko auzapez zenari saldu zion, herriko jauregian ezar zezan. Geroztik, han ikus daiteke.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com